

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Migel Zubiaur Ayo

*Erandio,
Bizkaia*

Aurkibidea

Biografia



Mota etxekoa. Fabrikako
langilea (kristal fabrika
batean, labe garaietan...).
Baserritarra.

Zintak

ERA-003

- **Proiektua:** IRALeren Bizkaiera Bilduma
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirresarobe, Kolesti - Bilbao, Mari Sol - Larrauri, Angel - Molina, Luis - Rodriguez Etxebarria, Nekane
- **Data:** 1989-11-06
- **Iraupena:** 93 min
- **Euskarria:** VHS Standard
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Kristal lantegian eta labegaraietan lanean

- **Erref:** ERA-003/004
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:08:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Bilbo Handiko lantegiak

Laburpena:

Auzoko Birigiko eskolan ibili zen. Hamalau urterekin hasi zen lanean. Zazpi pezeta irabazten zituen. Kristal lantegian eta labegaraietan egin zuen lan. Lan gogorra zen baina asko irabazten zuten.

Transkripzioa

- Ta zein eskolan egon ziñen? Hango eskolan? Goierriko eskolan?
- Hamentxe hamentxe, auzoan, Birigiko eskolan, Birigi horrek etxek horrek hortxe [...] hor daonak Birigi [deko].
- Eta zer, urte asko eskolan edo zelan?
- Urte asko? Hamalau urtegaz beharrean joan nintzen, bidrierara.
- A bai? Osea ke fabrikan ibili zara.
- Fabriketan, bai, fabriketan, bai, bai, bai.
- Eta zelako...
- Bidriera... euskeraz... esaten eutsen "bidriera" da erdara. Kristel fabrikera. Kristela, euskera hori da, kristel fabriken. Eukingo dau igual beste... baia bueno. Kristel fabriken. Zazpi urte egin genduzen.
- Baia hamalau urtetik hasita, Migel? Hamalau urtetik hasita?
- Hamalau urtetik hasi..
- Bidrieran?
- Bai, bai, kristel fabriken, bai.
- Eta non egoan bidriera hori?
- Hor Leioan, Leioako parten. Lamiako esaten dotse, Alkolera albon.
- Alkolera ez dakit, baina Lamiako badakit non dauen.
- Bai, ba Alkolera albon.
- Bai, bai, bai, bai... Eta zer, biharra ona zen edo zelan?
- Bai, [...] ni ondo egon nintzen, e? baie irabazi gitxi iten zan. Bueno, zazpi pezeta irabazten gendun. Ordun bai, ordun... ba zortzi ta holan gehien irabazten ebenak, ezta? Baia beharra ona euki gendun guk, beti barrun, barrun behar. Kuadrillen ibil zirenak irabazten eben zortzi, baie beharra

txarra, beharra txarra. Baie guren bere ama eleixatsu izen zan ezta? ama eleixatsu. Eta nik egunek danak ein behar izeten [neuen], domekak... Domeke badakizu, ezta? domeke da...

- Bai, bai, bai, bai.

- Domekak eta danak behar. Jaiek eta domekak eta danak behar, ezta? Eta hori paratan jakon txarto. Eta gero zerean sartu nintzen, Altos Hornosen.

- Han, kristal fabrikan, zazpi urte eta handik Altos Hornosera.

- Altos Hornosera, bai, Garaiko Altos Hornosera. Altos Hornosetik be gero urten [nendun] begixeaitik. Zegaitik labatan eiten [gendun] behar.

- Gogorra, ezta?

- Bai, bai, behar gogorra, bai. Irabazi asko, e.

- Bero itzela, ezta?

- Bero itzela. Irabazi asko. Zera eukiten gendun, haixea botateko, gainean... Betiladora... Bueno, hori ezin dot esan horrela... Bentiladora...

- Ondo dago, bai, ondo dago.

- Hori eukiten gendun ganean. Eta eiten nauen ni hamendi, garriti, fastidia. Bero, ezta, handie? eta ixerdie eta lepon beti haixea "ra ra ra ra" eta...

- Eta igual biharra peligrusu, ez?

- Ez, peligrorik ez. Peligrorik ez. Baia gogorra bai, behar gogorra.

- Eta zenbat ordu egunean, ba, zortzi ordu?

- Bai, zortzi ordu.

- Segiduan edo zelan?

- Bai, bai, segiduan, segidu zortzi ordu. Bai. Eta ibil gitzen sei ordun be, lau erreleboan, lau tandatan.

- Bai, bai, bai.

- Lau tandatan. Hirutan ta lauan be ibil gitzen luzero.

2. Errepublikarrekin gerran

- **Erref:** ERA-003/006
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:11:29. **Bukatu:** 00:14:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Errepublikarrekin ibili zen gerran. Burnizko gerrikoa apurtu zutenean, etxean zegoen. Berak lan egiten zuen Iberia izeneko lantegia Sestaon zegoen. Hantxe ibili zen lanean, Bilbo hartu eta gero. Hilabete bi egin zituen inguruan gerran. Babesik gabe eta eraso latzen pean ibili behar izan zuten.</p>

Transkripzioa

-Eta gerra kontau dozu. Nik, ba, gerrataz... ni ez naz bizi, entzun ein dot.

- Gerran?

- Zelan pasa dozu zuk, ba?

- Gerrea?

- Bai. A ber, kontaizu apurtxu bet.

- Gerran nik denpora gitxi [ein nendun]. Baie txarrena e, denporarik txarrena, e.

- A, bai?

- Bai. Ni ibili nintzen gorrin alderditi, gorrin alderditi, eta suerta nintzen etxean. Etxen suerta nintzen hona sartu zienen Francon alderdikok. Hori horra hori zinturoia esaten jotsena, Burnizko zinturoia. "Hiero" "burnia" da, ezta? Hori apurtu ein ebenen, ni etxen suerta nintzen. Eta gero, ba, nire

kinte ondinarren altxa barik euki euen Francok. Ni hogeta bederatziko kinto naz eta hori ondinarren zertu barik euki euen. Eta gero, ba, fabriken ordun Sestaon, lelengon Altos Hornosen sartu nintzen, ezta? Baie gero Sestaora, Sestaoko alderdire pase gintzen, Iberia esaten jakon taller batera. Hojalatak eiten gendun guk, hojalatik. Bueno, zerak: zerbezan tapoiak, zerak, tapak-eta iteko eta... materiala, baldek eta holako gauzek eiteko materiala eiten gendun. Eta entera zirenen etxen naola, geitu ein osten. [... gerrara] eta gero han lotu nintzen... Francoaz nik egun bat be ez dot ein.

- Andrea: Militarizau...

- Gero han lotu nintzen...

- A! Biharren?

- Ba, bai. Ibiliko [baninteko] modun, ba, konsignan, gerran ibiliko [baninteko] modun. Holantxek. Hori holantxek [suertaten da] gerrako denporan. Baie hile bi ein genduzen gerran, baie txarrak, e! buff...

- Eta hamen? Inguru honetan?

- Bai. Hemen, hemen, hemen bertan, bai. Bai, horra Sollube azpin be egonda nao ni. Sollube ta Jata ta...

- Jolin...

- [...]. Pase genduzen egunek e?

- Bai, e?

- Buff... Defensarik ez... zer defendidurik ez gendun euki geuk eta ha beste ka... abiazinoko eiten oskun, bueno, destrozuk eiten oskuezen. Eta kañoiak be... potentek. Buo! Bai, bai.

3. Abadiñora eta Durangora ihesi

- **Erref:** ERA-003/007
- **Iraupena:** 0:05:34. **Hasi:** 00:14:22. **Bukatu:** 00:19:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Hormaren kontra jarri zituzten behin, baina bizirik atera ziren. Morteroetan ibili zen bera, beste bi lagunekin. Tabakoa eta alkohola ematen zieten. Abadiñoko elizara eta Durangokora joan ziren babestera, baina bietatik alde egin behar izan zuten, bonbardaketengatik.

4. Durangoko bonbardaketa

- **Erref:** ERA-003/008
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:19:56. **Bukatu:** 00:23:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Durangoko bonbardaketan bizi izandakoak kontatzen ditu. Eraikin batera sartu eta irten ezinik geratu zirenekoa azaltzen du xehetasunez.

Transkripzioa

- Etxe zar bat egon zan. Bueno, etxea, zarra ez, etxea, kamino ezkiñen, bide ezkiñen. Eta sotanu, baie honen alturati [eukiko euen], horti, bai, klaro, honarteko alture euki [euen], kamiñon egon zan halako bentana bat gizona fazil pasateko modukoa barrure. Eta apurtute egon zan, teilatue eta danak... eta [sotanun] eskonbrok [...], salta gendun, bota gendun piezea, bota gendun hara barrure eta salta gendun hara barrure hirurok. Aiba! Gero, eskillarea, eskillarea, badakizu...

- Bai, bai, bai.

- Eskillarea, handi sotanuti gora igoteko eskeillare? eskonbrokaz tapata. Aiba, nondik urtenik ez gero guk! La madre... Ointxe gagozak majo! [...] ederto! Egon giñan bentanan eta ze egin gendun? Euki gaiñun garriko bat esaten jakona...

- Bai, bai, bai.

- Garrikok barrik nik eta lagunek, baie sendok! Sendok. Baltzak, garriko baltzak, sendok. Amarra, punteri amarra, ta hori deustuztarra, deustuztarra egin gendun -pisurik gitxienekoa izen zan- bion arten... imini eskonbroko ladrilluk-eta, batu han, derrepente, eskuz-eskuz han, [zazkelerik-eta bapez], han imini piloa, piloa imini eta hareri koiu biok ta altxa gendun ha gora [...]. Amarra karrikok gero, amarra garrikok punteti, [...] amarra pieze, bakotzek bat. Karrikok barrik eta fuertek euki genduzen, e! Sendok. Eta sobrau gero [...]. Hak pieza hori atera euskun, handi goiti tiratute, morteru hori. Gero beste lagunek, neure lagunek gero ba, gero nik, ta biok... mekaguen ros... koiu, makurtu holan, eskonbron pilo ganen parau holan eta beste para neure zeren, lepon [...] eta beste [...] amarragaz zereti, garriti amarra, garrikoaz, e, ha be. [...] eta tiretute txerpotx [...] urten kanpora. Bai, bai, bai. Hori ez da... barre eiten dou oin baia...

- Oin bai, oin bai, oin ederto, oin ederto.

- Mekatxis la porra... Bueno. Gero ni [...] atzen geratu nintzen.

- Zu azkena? Azkena han barrun?

- Bai, bai, neu atzenekoa. Amarra garriti, garrikoa eta bien arten, ros, eskegite hor...

5. Komandanteak heriotzatik libratu zituen

- **Erref:** ERA-003/009
- **Iraupena:** 0:06:34. **Hasi:** 00:23:22. **Bukatu:** 00:29:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Durangoko bonbardaketan bere tenientearekin topo egin zuen. Kamioi batean eraman zituzten eta taldekoekin batu ziren. Hormara bidali zituzten, baina komandanteari esker libratu ziren heriotzatik.</p>

6. Anaia gerran hil

- **Erref:** ERA-003/010
- **Iraupena:** 0:05:03. **Hasi:** 00:29:56. **Bukatu:** 00:34:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Komandanteak estimutan hartu zituen, morteroa gordetzeagatik. Migelen anaia ere errepublikarrekin ibili zen. Gerrako haren ibilerak kontatzen ditu.

7. Inguruko jaiak eta erromeriak

- **Erref:** ERA-003/011
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:34:59. **Bukatu:** 00:38:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Inguruko herrietako jaietara joaten ziren. Izendatu egiten ditu. Domeketan erromeriara joaten ziren eta hantxe ezagutu zuen emaztea, soldadu joan baino lehen.</p>

Transkripzioa

- Eta len zelan eitten zendun? Oin beste kontuk, ez? horrek romeriak eta. Ze guk, ba, bueno, oin, ba, bakizu, diskotekak eta dana barrun eitten dogu. Baia len?
- Erromeriek, erromeriek eiten genduzen guk, ba, San Antonio egunen, Marture; Santa Luzie egunen Loiure; San Pedro egunen be Loiure edo Mungiara; San Kristobal egunen hamen, geure patroia da, geure eguna da, San Kristobal egunen horra. Eta holan. Eta, osten...
- Andrea: Gorpuztin Erandion eta Sondiken...
- Bai, Gorpuzti eta honek ba hamen, bai. Eta domekatan hamen euki eben tejabana bat, hortxe zen, Sarria, ez dakit entzunde badekozuen, Sarria hor Mesoko esaten jakon etxe baten, hor. Hortxe topeu neban nik hau, andrea.
- A bai, e?
- Hortxe, bai, hortxe.
- Eta dantza eskatuta eta holan?
- Bai, dantzan eskatute, honbre.
- Ba lenengotan kalabazatxun bat emongo eban, edo ez?
- Keba, ez, ez. Kalabazak asko emoten oskuezan, e? henbrak.
- A bai, e?
- Henbrak, henbrak batzutan...
- Oin ez dakizu zenbat emoten daben oin be, oin ez dakizu.
- ... harroak, harroak. Henbrak harroak egoten ziren hemen.
- Bai?
- Buuu...
- Oin baiño ez dakit nik, e?
- Andrea: Gu ez gintzen harro ibiltten, gu [...], baie batzuk harroak egon ziren, bai.
- Ba ni hasi nintzen honeaz soldadu joan baiño lelau, 20 urteaz. Soldadu joateko...
- Andrea: Hogeta bat [eukiko zenduzen].
- E?
- Andrea: Hogeta bat [eukiko zenduzen].
- Baia ni joan nintzenez hogeta bat... klaro, baia ni martiko naz, martin

jaioko, martin hiruen jaioko naz ni. Eta bai, hogeta bat ondion ez, baia... bai. Eta beonek euki ebazen hamasei urte.

- Jolin!

- Guk, e... hainbat...

- Andrea: Baia nobiotan izen zan. [...]

- Domekatan-ta junta...

- Baia lagundu etxera eta holan, ez?

- Etxera, bai, bai, bai, etxera lagundu ta...

- Andrea: [...]

- Etxera lagundu ta, ba... lantzean behiñen hola ba zirritxu batzuk be bai. Honbre! Bai, ba. Horrek egik dire.

- Andrea: Baia [...].

- Eta andrari itxaroten denbora asko eman dozu itxaroten? Ze oin nik behintzat ematen dut denboratan...

- Itxeroten asko.

- Bai, ezta?

- Biba [el garros]...

- Hor pintalabioaz edo, zer da hori ba?

- Andrea: [Ni ez naz] pintatzen, gu ez gintzen pintatzen.

- Ke ba, beharra [eitten eben] honek eta...

- A bai?

- Bai. Beharrak.

- Eta zu zer, kanpun itxaroten?

- Kanpun, klaro, ba, parrandia ipinten... eukiten gendun lekun. [Horren lekuetan urtentan] tabako erre ta tabako erre ta ernegaten igual, tabako erre ta tabako erre...

- Ni be holan nabil, itxaroten eta itxaroten...

- Bai, baia honen modukoa bada, ernegau [ereingo] dotsu apur bat.

Andrea: Ez, baia [oinguen ez dao hori].

- Ez, ez dago?

- Mekatxis la porra!

8. Mutilen arteko borrokak

- **Erref:** ERA-003/012
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:38:04. **Bukatu:** 00:40:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Neskak dantzan eta gizonak jokoan aritzen ziren. Mutil taldeak borrokan aritzea ohikoa izaten zen, bereziki Erandiokoak eta Loiukoak.

9. Goierri inguruaren mugak

- **Erref:** ERA-003/014
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:42:30. **Bukatu:** 00:43:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Goierri nondik nora den zehazten du.

Transkripzioa

- Goierri, ba... Goierri eta Erandio. Ze Goierri oso handia da, ezta? Goierri non hasten da? Nondik nora doa Goierri?

- Goierri bastante da zabala, e. Bai, Goierri... Oin ba Goierri da dana, ezta? baie esaten da hamen hau gure hau, hasi hor kurtzen eta horra Motata esaten jako, Motata, gure etxan uzena. Motata. Eta hor behean, hor barra dan hori Juanin... Juanin barra-ta hor dekona, Iberre? Iberre. Iberre... barrio edo zera, baia dana da Goierri, e? Eta Goierri horrerri Martiartu alderdiri. Goierri dana da, hasi Iberretan, Iberreti hasi eta harik eta hori hor daon [atze]... Mendigorri esaten deusena? Hor arte da. Urgitxiti ta handi, horti sartute, hori. Zabala da, bastante zabala barrio hori. Bai.

10. Lantegiko greba

- **Erref:** ERA-003/015
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:43:51. **Bukatu:** 00:49:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Lantegian lankideekin ondo moldatzen zen. Sei hilabetez greban egon ziren, bera soldadutzan zegoela.

11. Errepublika garaia eta galtzearen arrazoia

- **Erref:** ERA-003/016
- **Iraupena:** 0:05:26. **Hasi:** 00:49:06. **Bukatu:** 00:54:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Iritziak

Laburpena:

Errepublika proklamatu zutenekoa kontatzen du. Errepublika elizarekin sartu zelako galdu zela pentsatzen du. Politikariei eta Francoren garaipenari buruzko iritzia ematen du.

12. `Txoriellorritxu´ren istorioak sorginei buruz

- **Erref:** ERA-003/020
- **Iraupena:** 0:04:56. **Hasi:** 01:02:20. **Bukatu:** 01:07:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Hamalau urtetatik gauez asko ibili behar izan du eta ez duela inoiz sorginik ikusi esaten du. `Txorielorrirtxu` esaten zioten baten kontuak aipatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Honek, antxiñeko kontuk, ba nik entzun dot Euskal Herrixen, leidu dot be, ba, honek sorgiñek eta honek eta... Badeko zu batanbat kontateko?

- Ba, [aitu]... Sorginen asuntua... Nik... gaztetati hamalau urteaz hasi nintzen beharren eta gauek orduko dekozen guztietan ibil naz kanpoti. Nik ez dot sorginik ez holango gauzerik iñoz ikusi. Eta hemen egon zan Elorritxun, Elorritxun egon zan gizontxu bet, holan, blusa mahonezkoaz, holan, blusa sendoaz ta `Txorielorrirtxu` esaten [jeutsen]. Bajutotxo bat ixen zan, [...] hirurogei kilo, hirurogei kilo... ez. Ta ferire... Gero hameti beste lekuetara joan zan biziten. Baia Basurtuko ferin sarri ikusten gendun. Eta hameko jentek be ezautu ta... ez dakit, `Txorielorrirtxu`. Eta sorginen kontuk. Sorginen kontuk eta [...] eskopetie... kazerue ixen zan. Ta holan joaten zanen iñora, ta [...] ta ibiltan zan ta eskopeteaz. Kauen... kauen ros... Ez dakit egie ixengo bada, e!

- Bueno, zuk kontau, berdin da.

- Egie ixengo bada ez dakit. Egie ixengo bada ez dakit. Eta ez dakit nongo ortusantu zan be, baia ortusantu baten ondoti pasa behar eben gaberdin o goxaldien. Ta katu figureko bat zerkan ganen [ixota] ortusantun. Ta, klaro, zerkan ganen ta [...] ta "panba! tiretan dotso ta barruko alderdire bota [...]. Bueno. Harek gero egunetan auzoko andra bat, henbra bat, beso zertute, apurtute edo. Aiba la ostra! Ta `Txorielorrirtxu` k esaten jok: "Neure tirok ein dotso hori horri, sorgin horri". Sorgin horri... ba, "honen kontra sorginek ez deuke ze iñik" esaten joan hak, "polboren kontra ez deuke ze eiñik sorginek" hori esaten joan hak. Niri ez jat iñoz be pasa. Bai, ta hamen esaten jakon, hamen esaten jakon, hamen... horri kurtziori, horri hor [...] daon kurtziori...

- Emaztea: "Cruz Roja"...

- "Cruz Roja" daon horri kurtziorreri Akarlanda esan jako, Akarlanda. Akarlanda. Antxiñen ba sorginen denporako zerean, ba, hor akarrak egoten ziela gauen, akarrak. Akarrak, ba...

- Oin be egoten diez, ez?

- Emaztea: oin gitxi dau akarra, gitxi dau.

- Nik ez dot ikusi... Horti sarri pasa barik eta [...] ez akarrak, ez ahuntzerik. Hor ez dogu guk ezer ikusi oindio.

- Oin hor egoten direz hor ba... gauean parejak eta ez direz hor egoten?

- Bai, horrek ez deuke akarren bildurrik! Horrek preparata datoz! Preparata! Horrek pistolea [...]. Ta hor esaten jakon [...] kateak, kate-hotsak eta zerak eta murrusak eta "oooo" eta zerak eta. Niri ez jat iñoz be suertau. Ta gu... Nik beste bieja... Bueno, jolin, ba, lau erreleboan ibil nitzenen [...] gaueko hamabietan urten han eta [boten] hemetikaldera pasa ta [...] ordu bata eiten jatazen. Ta guk muda ein behar izaten gendun: garbitu, muda... Ta gero bote koiu, hemetiko alderdire pasa, Lamiakora, ta handi hona etorri, ba, joe, ordu biak edo...

- Emaztea: Ordu bata eta erdi...

- Ordu bata eta erdi, ordu biak... eiten jatazen. Iñoz be nik ez dot holakorik...

13. Ehizatzen zituzten txori eta animaliak

- Erref: ERA-003/021

- **Iraupena:** 0:04:01. **Hasi:** 01:07:16. **Bukatu:** 01:11:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Arrantzan ibiltzen zen kainaberarekin, amua eta harra jarrita. Kaskailuak eta aingirak hartzen zituen. Ehizan ere ibiltzen zen. Aitak hiltzen zituen txori eta animaliak izendatzen ditu. Eskopeta arto artean ezkutatzen zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com